

Euskal AEko Zerbitzuen sektoreko salmentak % 7,6 jaitsi dira 2021eko lehen hiruhilekoan urte arteko terminoetan


2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 1,9 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko *Merkatuko beste zerbitzuen* sektoreko salmentak % 7,6 jaitsi dira 2020ko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak behin kenduta. Ostalaritza, Garraioa, Informazioa eta komunikazioak eta Enpresentzako zerbitzuen jarduerak sektoreek eskainitako zerbitzuak zenbatu dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak % 1,9 igo dira 2021eko lehen hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta urtaro-eraginak atera ondoren.

Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Zerbitzuen sektorearen barruan, salmenta errealean urte arteko atzerapena (prezio konstanteetan) orokorra izan da, *Garraio eta biltegiatzearen* kasuan izan ezik, non % 1,9 igo diren. Urte arteko portaera negatiboa dutenen artean, nabarmentzekoak dira salmentetako jaitsierak *Ostalaritzan* (% 28,3ko murrizketa) eta *Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrien* sektorean (% 14,7koa). Ondoren, *Jarduera profesional, zientifiko eta tekniko*en salmentak datoza, zeinak % 3,8 jaitsi baitira; eta, azkenik, *Informazioa eta komunikazioak* sektorearenak, non % 1,7 jaitsi diren.

2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, susperraldia orokorra izan da sektore gehienetan. Hala, *Ostalaritzan* salmentak % 13,2 igo dira 2021eko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, *Garraio eta biltegiatzean* % 6,8 eta *Jarduera administratibo eta zerbitzu osagarrietan* % 4,2. Aldiz, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan* (-% 1,3) eta *Informazioa eta komunikazioak* delakoan (-% 0,8) salmentak jaitsi dira hiruhileko artean.

Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Bestelako merkatuko-zerbitzuak. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. I/2021

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-7,6	1,9	-7,6
Garraioa eta biltegiatzea	1,9	6,8	1,9
Ostalaritza	-28,3	13,2	-28,3
Informazioa eta komunikazioak	-1,7	-0,8	-1,7
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-3,8	-1,3	-3,8
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-14,7	4,2	-14,7
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba	-5,8	3,1	-5,8
Bizkaia	-8,7	0,6	-8,7
Gipuzkoa	-6,1	3,9	-6,1
ENPLEGUA	-3,6	-0,8	-3,6

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

Lurraldeka, Bizkaian urte arteko % 8,7ko jaitsiera dago salmenta-indizean, Gipuzkoan % 6,1ekoa eta Araban % 5,8koa.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, Gipuzkoan salmentak % 3,9 gehitu dira, Araban % 3,1 eta, azkenik, Bizkaian % 0,6.

Euskal AEko Zerbitzuetako langile landunen indizea % 3,6 jaitsi da urte arteko aldian. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 0,8ko igoera izan da.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiantural honetan eta beste indize ekonomiko koiantural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuen definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **93,20ko estaldurarekin** kalkulatu da –informazio hori apirilean jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62